

Txioen bidez ematen diren iritziak aztertzeko tresna

EHUk eta Elhuyar Fundazioak sare sozialetan dabiltzan euskarazko mezuak ikertuko dituzte

DONOSTIA – Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Informatika Fakultateko IXA Taldeak eta Elhuyar Fundazioko Hizkuntza eta Teknologia Unitateak euskarazko txioen sentimenduak aztertzen

dituen tresna bat sortu dute, euskal herritarrek sare sozialetan ematen duten iritzia ezagutzeko. Hain zuzen, *Twitter* sare sozialean botatzen diren txio guztietatik gai baten inguruan emandako iritziak erauzi eta sailkatzeko sistema garatu dute bi erakundeek.

Internet eta, bereziki, sare sozialak, erabiltzaileek sortutako edukien iturri oparoa dira, besteak beste, zernahiri buruzko iritziak ematen dituzte erabiltzai-

leek, nonahi eta noiznahi, doan. Informazio horrek "berebiziko garrantzia du erakunde, enpresa, eragile eta abarrentzat, beti izan baitute interesa jakiteko herritarrek, erabiltzaileek edo bezeroek zer iritzi duten haiei buruz. Tradizionalki, kostu handia duten inkesta edo galdera-sorta bidez eskuratu izan dute informazioa, baina laginak beti txikiak izan dira", azaldu du EHUko IXA Taldean zuzendutako lanaren egile

nagusi Iñaki San Vicentek. Orain, berriz, datu kantitate erraldoiak sortzen dira sare sozialetan, eta, oro har, Interneten. Erroka, ordea, hortik interesa duen informazioa behar bezala erauzi eta sailkatzea da. *Sentimenduen Análisisa* deritzon ikerketa arloak edonolako testu batean iritzi edo sentimendu positibo edo negatiboren bat adierazten ote den ebatzeko metodo automatikoak bilatzen ditu. –E.P.